

1.1. URTEKO BIZIKIDETZA-PLANA (UBP). ESPARRU TEORIKOA

LOEek bizikidetzaren aldeko hezkuntza aipatzen du behin eta berriro; izan ere, garrantzitsua da, hala hezkuntza-komunitateko kide guztien ongizaterako, nola pertsonak eta gizartea garatzeko eta ikasleek ikasketetan ondo ibiltzeko

Lege horrek adierazten duenez, ikastetxeetan derrigorrez izan behar da bizikidetzaren plana, eta aipatzen du eskola-kontseiluaren eginkizunen artean sartzen dela “Neurriak eta ekimenak proposatzea, horiek ahalbidetzen badute zentroan elkarbizitza, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna eta gatazkak bake bidez konpontzea”.


Euskal Hezkuntza Sistemak bizikidetzarako eta herritartasun demokratiko, aktibo eta arduratsu baterako hezkuntzaren alde egiten du. Horretarako, hainbat balioetik abiatuta hezi behar da (hala nola justiziatik, tolerantziatik, errespetutik edo elkartasunetik abiatuta), eta ikasleengan beharrezkoak diren gaitasunak garatu behar ditu, arazoak eta gatazkak konpontzeko gaitasuna sortuta, bizitzaren kudeaketa arduraz beren gain hartzeko, bakoitzak bere buruarekin eta gainerakoekin harreman positiboak izateko, erabakiak hartzeko, zentzu kritikoarekin jokatzeko eta ingurunea era sortzailean eraldatzeko.

2000. urtean Bizikidetzaren aldeko Hezkuntzako lehen programa jarri zen abian, eta geroztik programa hori zabalduz eta sakonduz joan da gaur arte. 2009-10 ikasturtean, sakon ebaluatu da zein eragin izan duten ikastetxeek prestatutako bizikidetzaren planek eta bizikidetzaren behatokiek. Ebaluazio horren helburua izan zen arrakasta-adierazleak identifikatzea, bizikidetzaren plana prestatu nahi duten ikastetxeei laguntzeko.

Egun, Hezkuntza Sailaren lehentasunezko jardute-eremuetako bat da herritartasun-balioetan hezteko eta elkarrekin bizitzea. Bertan jasotzen denez, “Hezkuntza-sistema eten gabe egokitze prozesua eskatzen dute gizarte-aldaketek. Ezagutzak transmititzea baino askoz gehiago baita hezkuntza XXI. mendean. Ikasleak hezteko, belaunaldi berrien integrazio pertsonala errazteko gaitasunak garatu behar ditugu, baita gizartean bizi eta laneratzeko gaitasunak ere, etengabe aldatzen ari den gizarte-testuinguru batean.

Gure jardun-eremuaren baitan, “elkarrekin bizitzea ikastea” da hezkuntza-sistemaren oinarritzeko helburuetako bat. Ikastetxeen erronka da hezkuntza-komunitateak bere egingo duen bizikidetzaren eredu bat, balio demokratikoetan oinarritutakoa, lantzea. Hezkuntza-komunitateak bere egingo badu bizikidetzaren eredu hori, familiek, irakasleek eta ikasleek, guztiek batera, egin eta landu behar dute eredu hori.





Gaitasun horien mamia eta “elkarrekin bizitzea ikastea” ezinbesteko jarduerak dira: norberaren herritartasuna arduraz erabiltzea, ikastetxean eta gizarte-bizitzan inplikatzeko ikastea, elkarriketaren bidea ikastea, giza



eskubideak errespetatzea, biktimekiko enpatia izatea, gatazkekiko jarrera positiboa izatea, gizarte-trebetasunak eta emozioen kontrola lantzea, ideiak proiektu bihurtu eta horiek burutzeko gaitasuna, nor bere burua ezagutzea eta autoestimua lantzea, eta ildo horretako gainerako alderdiak. Horrenbestez, ikuspuntu hori hartzen badugu, Elkarbizitza Planak oso tresna baliagarriak dira ikastetxeek gaitasun horiei begira dituzten hezkuntza-helburuak birpentsatu, diseinatu eta bistarazteko.

Hezkuntza ezinbestekoa da balio etiko eta demokratikoak transmititzeko. Herritarren borondatearen emaitza diren erakunde, zuzenbidezko estatu eta ordenamendu juridikoarekiko oniritzia sustatu behar du Hezkuntza Sistemak.

Hori aurrera eramateko, material honek, beste proposamen batzuen artean, premisa hauek ditu abiapuntutzat:


-  Hezkuntza-komunitate osoak parte hartu behar du bizikidetzaren hobetzean.
-  Konturatu behar dugu zein garrantzitsua den bizikidetzaren positiboaren aldeko hezkuntza, berez, hezkuntzako helburu moduan.
-  Gure sinesmen, jokatzeko modu eta abarren gainean hausnartu, eta erreferentzia partekatutako kontzeptu-esparruak eraiki behar ditugu.
-  Bizikidetzaren hobetzeko, protagonismoa eta erantzukizuna bereganatu behar dute komunitate kide guztiek.

Une egokia da parte-hartzea indartzeko, batez ere ikasle eta familien parte-hartzea. Horretarako, behar-beharrezkoa da egoki dinamizatzea, beldurrak eta erresistentziak gaindituz eta estrategia eta tresna egokiak emanez, parte-hartze hori benetakoa eta eraginkorra izan dadin.

Horretaz jabetzeaz gainera, hezkuntza-komunitateak era guztietako baliabideak jarri behar ditu, aurreikus daitezkeen gatazka-egoerak saihesteko. Horrela, ikastetxean giro ona lortuko da, eskola-bizitza modu antolatua eta atsegina gara dadin, eta, horrela, ikasi eta irakasteko denbora gehiago izateko; izan ere, ikasleek arrakasta pertsonal handiagoa izango dute eta emaitza hobeak izango dituzte eskolan.

Bizikidetzaren positiboa eta atsegina izateko aurrerapauso sendoak emateko, hezkuntza-komunitateko maila guztiek parte hartu eta inplikatu behar dute; izan ere, horrek izan behar du nahitaz oinarria, gizarte-sare sendoa eraikitzeko, demokrazia parte-hartzailea lortzeko eta, horrela, hiritartasunean hezteko. Eta hiritartasun demokratiko, aktibo eta arduratsuan hezteko, justizia, errespetu eta elkartasuneko balioetan hezi behar dira ikasleak; era berean, arazoak eta gatazkek konpontzeko gaitasunak garatu behar dituzte, eta gai izan behar dute nor bere bizitza erantzukizunez kudeatzeko, nor bere buruarekin eta inorekin harreman positiboak izateko, zentzu kritikoaz jokatu eta erabakitzeko, ingurunea sormenez aldatzeari ekiteko, eta abar.

Prozesu hori bermatzeko, hausnarketa partekatutik abiatu behar du prozesuak, modu aktiboan parte hartu behar da bertan eta hezkuntza-komunitatea osatzen duten pertsona guztiek komunitateko kideak direla sentitzea sustatu beha da. Apurka-apurka, hartu-emanen eta lanaren kultura



aldatu egingo dugu; horrela, ikastetxeko eguneroko lanetan pertsona guztien bizikidetzaren eta ongizatearen aldeko hezkuntzan integratuko da.

Gida hau berriro argitaratzen da, baina aurretik Euskal Autonomia Erkidegoko hainbat ikastetxe publiko zein itunpekotan probatu eta erabili izan da, eta hezkuntza-etapa guztietan eta hainbat ibilbidea egin du; beraz, horrek erakusten du lagungarria dela Bizikidetzaren Plana sortzeko prozesuan.

Bizikidetzaren Behatokia abian jartzen eta Bizikidetzaren Plana prestatzen lagunduko duelakoan gaude, eta espero dugu honen bidez, egunean egunekoa eraikitzean, hezkuntza-komunitatea osatzen duten pertsona guztien hartu-emanak hobetzea eta horien guztien protagonismoa sustatzea.